



hona hemen hurrena. Hurá irakurtzen hasten zirentzat egina zen, eta hau aldiz, 12 urtetik gorakoentzat.

Egilea, Maria Gripe, haur literaturgintzaz zertxobait dakienarentzat aski ezaguna, Andersen sariduna. Bere no-belek errealitatean dute oinarria, fantasia ttantta batzuk nahasten baditu ere, eta bakardadea, adiskidetasuna eta horrelako giza-balioak ditu beti mintzagai. Nolabait ere, beste arte batzuetan bezala haur literaturan ere hitz egin liteke 'eskola eskandinaviar' batez, eta horren barnean Maria Gripe suediarra litzateke ezagunena.

Nobela honetan Loella ize-neko neskatxa bat dugu protagonista. Bera eta «Aita Pelelerin». Eta nor da Aita Pelelerin? Loellaren adiskidea, eta Loellaren aita ere bai, baina aldi berean txorimalo bat, eta basoan bizi dira. Eta ez dizugu gehiago esango, horretarako dago liburua eta.

Izenburua: Haizeaz bestaldetik.

Egilea: Txillardegia.

Argitaratzailea: Elkar.

Ezaugarriak: 217 orri, 720 pezeta.

Liburu hau lehendik ezagutzen genuen, 1979an argitaratu batzuen, eta guk dakigunez erderara itzuli ere bai, «Allende al viento» izenpean, Txillardegiri itzuli dioten bakarra itxuraz, onena delakoan edo; badirudi ez zuela arrakasta handirik izan, ez euskaraz ez erdaraz, eta bo-




lada luze batez utxixea izan du Jose Luisek literaturaren langintza, harik eta aurten Exkixu pamosoa kaleratu zai-gun arte.

Ezagutu ezagutzen genuela esan dugu, baina irakurri... inguruan hasi gara galdezka eta ia inork ez du irakurri. Batek 20. orrian utzi omen zuen, besteak erdian... Izan ere, astun samarra baita «Haizeaz bestaldetik» hau. Egileak bere pentsakera osoa bertan hustu nahi izan zuen, bere filosofia literatura bihurturik isladatu. Irakurleari kontsesiorik egin gabe burutu zuen lan hori, eta horrela kostata lortuko du txillardegizaleak maisuaren mundu ikuskera antzematea, bere ikaspidea entelegatzea. Meritu gehiago hartara, lortzen duenarentzat.

Lan hori erraztearren, el-karrizketa zati batzuk erantsi dizkiote Elkarrekoek liburu atarian. Txillardegik Pako Aristirekin La Vozentzat orain urte batzuk egindako solasaldia da, eta bertan liburuaren azalpen bat dator, ulertu nahi duenarentzako maratila eta irakurketan abiatzen denarentzako makulua.

Nobelaren aurretik, lehen argitalpen hartan bezala, Jose Azurmendiren hitzaurrea, nobelagintzaren zahar/berri eta esperimientuez ari dena; interesgarria, Azurmendik egiten duen oro bezala nahiz garai hartako kutsuak gaur hainbesteko baliorik ez duen (Saizarbitoriaren bidearekiko lehi modukoak etabar). Joxe beti zintzo, agindutako lana



betetzen. Konta dezagun zerbait nobelaz. Exkixuren antipodetan dago: horetan dena da ekin-tza eta honetan batere ez. «Haizearen bestaldetik» elaberri poetiko edo, hobeki, metafisikoa da, Leturia eta Peru Leartzekon bezala bizi-tzaren nahi eta ezin, kinka eta kezkez diharduena, baina pertsonaia barik, aipamen espazio-temporal argi barik. Aitzitik, badu zati ederrik, pasarte landu eta bikainik.

Izena: La literatura infantil vasca.

Egileak: Seve Calleja / Xabier Monasterio.

Argitaratzailea: Mensajero, Deustuko Unibertsitatea.

Orain aste pareta elkar hizketa bat kaleratu genuen Xabier Monasteriorekin, liburu hau genuela mintzagai. Horrez gainera gure orriotan aipatzea ere merezi duela-koan, egin dezagun iruzkin-txo bat, laburra bada ere.

Liburuaren azpituluak argitzen duenez, atzerketa historiko bat da, literatura mota horrek Euskal Herrian izan duen bilakaera aztertzen da, eta lan hau hobeki burutzeko haur literaturaren testuinguru europarrean kokatzen du gurea.

Liburuak, nolabait esateko, hiru atal nagusi, edo hiru ikergai ditu. Lehendabizikoak eztabaida zahar, luze eta kortapilotsu batean argi pixar bat ekarri nahi luke: haur literaturarik badea? Literatura da edo azpilyeratu-

ra edo zer? Haurrentzat ba-karrik da, edonorentzat? Definizio anitz egin izan da, ikuspuntu ugari dago, eta gai interesgarria da, behin-betiko erantzunik bilatu ezin bada ere.

Bigarren gai orokorra, euskal haur literaturaren historia litzateke, inguruko herriekin erkatuta eta berezko bilakabidean, gerra garaia arte, gerra ostea, gaur egungoa. Genero honetan garrantzi berezia duenez, hemen ere halako tokia eman zaio argitale-txeen kontuari. Ezaugarri orokorrak ere ikusten ahal dira: nola egon den abertzale-tasunari lotua, erlijio gaiet lotua, ikastolen zabalkun-deak izan duen berealdiko in-portantzia...

Azken zatian, genero honetan aritutako 20 egile garrantzizkoren berri ematen zaigu, bakoitzaren bibliogra-fia, ezaugarriak eta antologia ttipi batekin, hasi Iturriaga-gandik eta Mariasun Landa eta Antton Olariagaganaino.

Ikerketa hau, Jaurilaritzak bekatua, lehendabizi euskaraz argitaratzeko asmoa omen zegoen, baina ez da hala izan. Hala ere, Xabier Monasteriok agintzen zigunez, honakoa lan osatuago baten atariko omen da, eta osatu hori bai, euskaraz kale-ratuko omen da. On litzateke hori, 'umekeriak' direlakoan ezin baita gogoeta egin barik bazter batean laga liburugin-tza osoan zebakitan hainbesteko pisua duen arloa. Aurretik A. Lertxundirten li-buru bat ezagutzen genuen eta ezer gutxi besterik. Jaio-ko dira berriak.